



**HAL**  
open science

## Euskararen egoeraz Iparraldean: ohar batzuk sarrera gisa

Jean-Baptiste Coyos

► **To cite this version:**

Jean-Baptiste Coyos. Euskararen egoeraz Iparraldean: ohar batzuk sarrera gisa. Bat: soziolinguistika aldizkaria: Hizkuntza normalizazioa eta glotopolitika aldizkaria, 2006, 59, pp.27-38. artxibo-00069669v2

**HAL Id: artxibo-00069669**

**<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00069669v2>**

Submitted on 9 Jun 2006 (v2), last revised 17 Jul 2006 (v3)

**HAL** is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

# EUSKARAREN EGOERAZ IPARRALDEAN : ZENBAIT GOGOETA SARRERA GISA

**Jean-Baptiste Battittu Coyos**

IKER Euskarari eta Euskal Testuei buruzko Ikerketa Gunea,  
UMR 5478 (CNRS) - Baiona  
Helbide elektronikoa : [jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr](mailto:jean-baptiste.coyos@wanadoo.fr)

**Abstract** : *The object of this article is to make some reflections about the situation of the Basque language in the Basque Country of France (Iparraldea). According to sociolinguistic investigations, the speakers, all bilingual, represented 24.7 % of the population in 2001 against 33.1 % in 1991. The family transmission of the language is weak, and, even if the Basque language is regarded as one of the principal characteristics of the Basque identity, few of the people in the study wished to learn it. The legislation does not recognize the Basque language as an official language, it merely authorizes its teaching on a volunteer basis. The linguistic policy that the authorities set up puts considerable emphasis on teaching, but the older the pupils are, the less likely they are to learn it. This policy, based on motivation, will run up against the fact that to know Basque is not essential to life in Iparralde ; few jobs are proposed and the fields where the Basque language is only language are far from numerous (immersive teaching, some radios, some families). One of the keys will be to be able to create other unilingual social spaces.*

**Key Words** : *situation of the Basque language, French Basque Country, language competence, use, teaching limits, functions of the language, monolingual spaces*

Euskararen egoera aztertzen dugunean Iparraldean, datu asko kontuan hartu beharko genituzke, hizkuntza guttitua dela ohartuz : hiztun kopurua eta konzentrazio demografikoa, gaitasuna, erabilera, familiaren bidezko transmisioa, gizartearen egitura, hizkuntzaren lekua gizarte-eremu guztietan, hizkuntzaren irudia, estatutu juridikoa, etab., erabilera emaitza garrantzitsuena litzatekeelarik behar bada.

Euskararen alde lan egiten duten elkarteei esker euskararen egoera txarra gogoan hartu izan da emeki emeki, eta duela gutxi podere publikoek hizkuntza publiko bat abian ezarri dute, euskararen aldeko politika publikoen alor bat zela onartuz (2000-2006). Ekintzen eta ondorioen balorazioa egiteko 80ko hamarkadara atzera egin beharko genuke, urrunago ez bada : lehen ikastola 1969an, lehen klase elebidun publikoa 1983an, euskara hutsezko irratiak 1981 (Gure Irratia) eta 1982an (Irulegiko Irratia eta Xiberoko Botza), etab. Artikulu labur honetan, ikuspegi oso bat eman baino, oraiko emaitza batzuk, zenbait ohar eta gogoeta aurkeztu nahiago ditut.

# 1. EUSKARAREN EGOERAREN AURKEZPEN LABUR BAT INKESTA SOZIOLINGUISTIKOEN BIDEZ

## 1.1. *Euskararen Jarraipena III Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001*

Euskararen egoeraz mintzatzen garelarik, Euskal Autonomia Erkidegoak bururatzen dituen inkesta soziolinguistikoak ahaztu ezinezkoak dira : *Euskararen Jarraipena I, II, III Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 1991, 1996, 2001*<sup>1</sup>. Hona laburbilduz Iparraldeko emaitza esanguratsu batzuk, besteak beste (Euskal Autonomia Erkidegoa 2003) :

– Euskararen gaitasunaz : 1991eko inkestaren arabera elebidunak % 33,1 ziren (69 000) eta 2001ekoaren arabera % 24,7 (55 000), biztanleria igotzen zelarik ohartzuz. Alderantziz 1991ean elebidun hartzaileak % 7,1 ziren (69 000), 2001ean % 11,9. Baiona-Angelu-Miarritze hirigunean non biztanleriaren % 43,1 bizi diren, elebidunak % 8,8 lirateke. Nafarroa Beherea-Zuberoa lurraldean non biztanleria jaisten den, elebidunak % 60,9 lirateke eta elebidun hartzaileak % 15,1. Hizkuntza-gaitasuna adinarekin igotzen da ; Euskal Autonomia Erkidegoan, aldiz, gazteenak dira euskaldunenak. Halere Iparraldean, 1996az geroztik, elebidun hartzaileen ehunetakoia igo litzateke gazteen adin-taldean.

– Transmisioa familian : 1991ean % 32,5k euskara ama-hizkuntza gisa zuten, 2001ean % 25k, eta belaunaldi gazteenetan ehunetako hori beherago dela pentsa dezakegu. "XX. mendean zehar galera azkarra gertatu da familia bidezko euskararen geroratzean" (EAE 2003 : 25. or.)

– Euskararen erabileraz : Amarekin euskaraz bakarrik mintzatzen direnak % 10,9 lirateke, frantsesez bakarrik mintzatzen direnak % 79,5 ; lankideekin euskaraz bakarrik mintzatzen direnak % 5,3 lirateke, frantsesez bakarrik % 84,2 lirateke ; estatu administrazioekin euskaraz bakarrik mintzatzen direnak % 1,2, frantsesez bakarrik % 95,4.

## 1.2. *Kale erabileraren IV. neurketa (2001)*

Erabilerari buruz esan behar da Euskal Soziolinguistika Institutuak egiten dituen kale erabileraren neurketak biziki interesgarriak direla zeren eta inkestatu denaren uste eta irudikapenak ez baititu biltzen, baina bai hizkuntzaren egiazko erabilera neurtzen, esan nahi baita elkarrizketarik zenbat diren euskarazkoak : *Kale erabileraren I., II., III., IV. neurketa (1989, 1993, 1997, 2001)*. Noski, kaleaz bestalde, holako inkestak beharrezkoak lirateke.

Iparraldeko kaleetan euskarazko elkarrizketen ehunetakoak horiek dira : 1993ko inkestaren arabera % 6,5, 1997an % 6,3 eta 2001ekoaren arabera %5,8. Beraz erabilera kalean jaisten da. Euskal-Herri osoari konparatuz (% 14), Iparraldean erabilera beherago da. Halere, adin-taldeak kontuan hartuz, haurretarik % 6,9k euskara erabiliko lukete kalean, gazteetarik % 3,9k, helduetarik % 7,8k eta adinekoetarik % 14,2k. Beraz, adin-talde gazteenean erabilera berriz igotzen ariko litzateke.

Bi inkesta hoiei esker ohartzen gara euskararen erabilera ehunetakoia ezagutza ehunetakoia baino beherago dela. Emaitza hori, ongi ezaguna bada ere, kontuan hartzeko da, haren baldintzapena ongi aztertzeko da, euskararen egoera ulertu nahi baldin badugu eta noski eraginkor den hizkuntza politika bat kudeatu nahi baldin badugu.

Horri buruz, eranskinean, hizkuntzaren erabileraren eragileak hontuan hartzen dituen eskema bat proposatzen dut, non ahalezko hiztuna erdian den, jakinez ez dela gizartea mintzatzen dena bainan bai hiztuna.

### **1.3. *Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak Euskal Herrian (2004-2005)***

Inkesta aurkezpen labur hau bukatzeko Euskal Kultur Erakundearen *Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak Euskal Herrian* inkestari begirada bat eman dezagun (EKE 2004-2005). Hitz egiteko gaitasunaz, emaitzak Eusko Jaurlaritzaren 1991, 1996 eta 2001eko inkesta soziolinguistikoen antzekoak dira. Iparraldean euskal nortasunaren ezaugarri nagusiak sor lekua eta euskara dira. Bainan eskaldunen ohizko praktika kulturalan euskarak lehentasuna ez du. Euskara ez dakitenetarik % 61ek ez lukete ikasteko asmorik, EAEan aldiz % 40 lirateke. Iparraldeko biztanleeetarik % 12k seme-alabek euskara jakin dezaten ez lukete nahiko eta % 20ri berdin litzaieke ; EAEan bi mota horiek % 4 baizik ez lirateke.

## **2. LEGEGINTZAREN OZTOPOA : EUSKARA, LEGEZKO EZAGUPENIK GABEKO HIZKUNTZA BAT**

### **2.1. Legezko kuadroa : *Konstituzioaren bigarren artikuluari emendakina (1992) eta Frantses hizkuntzaren erabilerari buruzko legea (1994)***

Dakigun bezala legealdi mesedegarri bat biziki garrantzitsua da hizkuntza gutxitu bat laguntzeko, jakinez legealdi onuragarria ukanik ere hizkuntza bat mehatxatua izan daitekeela. Frantziako hizkuntza propioek ofizialtasun izpirik ez dute oraino eskuratu, frantsesak ez ezik eta legegintza bat baizik ez da, estatuarena. Kuadro hori oroitaraztea balio du, laburbilduz.

1992an diputatuek konstituzioaren bigarren artikulua emendatu zuten esanez frantsesa zela Errepublikaren hizkuntza eta bi urte buruan, beraz 1994an, lege berezi bat sortu zuten, "Frantses hizkuntzaren erabilerari buruzko legea" deitzen dena (*Loi du 4 août 1994 relative à l'emploi de la langue française*). Legezko kuadro berri horri esker frantsesa gerizatu behar zuten ingelesaren eragin eta erasoez.

Lege bat baizik ez da frantsesetik kanpo Frantziako hizkuntzei osoki emana dena, "Tokiko hizkuntza eta dialektoen irakaskuntza" (*Enseignement des langues et dialectes locaux*) edo Deixonne lege delakoa (1951). Irakaskuntza baizik ez du kontuan hartzen. Lege horrek lehen aldikoz "tokiko hizkuntza eta dialektoen ikastea" baimentzen zuen (1. artikulua). Bainan irakaskuntza hori nahierarakoa zen (3. artikulua) eta hori ordudanik ez da sekula aldatu. Hezkuntzarekin ikusteko duten legeak oro "Hezkuntzaren kodea"n (*Code de l'éducation*, 2000) bilduak izan dira. Lehen tituluko 12. artikuluan esaldi hori irakur daiteke : « Eskualdetako hizkuntza eta kulturen irakaskuntza eman izan daiteke eskolatze osoaren zehar », eta besterik ez da Frantziako hizkuntzei buruz.

Geroztik, azken bost hamarkada horietan, borrogeita hamar bat euskalde hizkuntzen aldeko lege proposamen aurkeztu dituzte *Assemblée nationale* delakoan ; batzuk eztabaidatuak izan dira, bainan bat ere ez da sekula onartua izan.

## **2.2. Legegintzaren eraginak : hiru adibide**

Legezko kuadro horrek zer indar juridiko daukan erakusteko, hona hiru adibide :

— Europako Kontseiluaren *Eskualdetako eta Gutxitutako Hizkuntzen aldeko Europako Karta*, Frantziak izenpetua izanik ere (1999/05/7), ez da onetsia izan eta beraz sekula praktikan erabilia, Konstituzio Kontseiluak (*Conseil constitutionnel*) jakinarazi baitzuen Gutuna frantses konstituzioarearen aurka joaten zela (1999/06/15) : Europako kartako 39 neurri onargarriak direlarik ere, lau printzipio konstituzioaren aurka doazela, esanez Frantzian gutxiengo nazionalik ez delarik, etab.

— Murgiltze eredia legegintzaren aurkakoa da (Estatu Kontseiluaren erabakia (*Conseil d'Etat*), 2002/11/29), Hezkuntzaren kodetik urrunago joaiten baita. Erabaki horren ondorioa da murgiltze eredia, jasana bada ere, onartua ez dela. Aldi berean, irakaskuntza eredu hori Iparraldean garatzen dela ikusiko dugu, baina era batez zalantzan izanik esan daiteke.

— Parekotasuneko elebidun ereduaren mugatzea (Estatu Kontseiluaren erabakia, 2002/11/29). Estatu Kontseiluak erabaki du Hezkuntzaren kodearen arabera ikasgai oroan irakaskuntzaren zati bat frantsesez egin behar zela. Honela parekotasuneko elebidun ereduaren pedagogia mugatu du.

## **3. EUSKARA BIZIRAUTEKO ETA GARATZEKO, IRAKASKUNTZAREN MUGAK**

Gure gizarte modernoetan, hizkuntza gutxituarekiko komunitate linguistikoen familietan hizkuntza gutxi transmititzen dela ohartzen da. Transmisio ahul hori komunitate linguistiko hoienez ezaugarri garrantzitsuetarik bat dela esan dezakegu. Eta beraz podere politikoek edo komunitate horren gizarte-indarrek hizkuntza politiko bat sortzen dutelarik hizkuntza guttitu horren irakaskuntza garatzen dute, alde batetik hizkuntza honen transmisioa segurtatzeko, hiztun berri eskuratzeko, erabilera bultzatuko duela pentsatuz bestetik.

Iparraldeko kasuan, era berean, familiaren bidezko transmisioa ahula dela ikusi dugu eta honela, lehenik elkarteei esker (Seaska, Ikas Bi, Euskal Haziak), euskarazko eta euskararen irakaskuntza garatu da.

### **3.1. Garatzen eta desorekatua den euskararen eta euskarazko irakaskuntza**

Euskararen eta euskarazko irakaskuntza garatu da azken hogeita hamar urteetan Iparraldean, parekotasuneko elebidun eredia bereziki. Adibidez, 1993-1994 ikasturtean 1902 ikasle ziren parekotasuneko elebidun ereduaren (1988-1989an 873) eta 1005 murgiltze ereduaren (ikastoletan). 2004-2005 ikasturtean, 4669 ikasle ziren parekotasuneko elebidun ereduaren eta 1480 murgiltze ereduaren.

Horiek dira 2004-2005 ikasturteko ikasle kopuru ehunetakoak (Euskararen Erakunde Publikoa, 2005, uztaila : 14. or.).

2004-2005	Murgiltzea	Parekotasun elebiduna	Iniziazio edo "opziona"	Euskararik gabekoa
<b>Ama-eskola / lehen maila</b>	% 5,7	% 18,9	% 5,4	% 69,9
<b>Kolegioa</b>	% 3,7	% 6,2	% 8,4	% 81,7
<b>Lizeoa</b>	% 2,4	% 2,3	% 4,4	% 90,8
<b>Lanbide ikastexea</b>	% 0	% 0,3	% 0,4	% 99,3

Beraz ikasleen bi herenek ez dute deus ikasten euskaraz edo euskarari buruz. Argi eta garbi ikusten da ere adinarekin gero eta gazte gutxiagok euskaraz edo euskara ikasten dutela. Nik datu hori hola aztertuko nuke : euskararen edo euskarazko irakaskuntzak boliorik, interesik ez duela lan etorkizuna prestatzeko, ofizio bat eskuratzeko. Lan-munduan sartzeko epea gero eta hurbilago denean, euskaraz edo euskara gero eta gutxiago ikasten da.

### 3.2. Neurtu ez diren irakaskuntzaren emaitzak

Irakaskuntza horren beste ezaugarri bat azpimarratzeko litzateke, besteak beste : ikasleen mailaren neurketarik gabeko irakaskuntza da, ikasgelatik kanpo bederen. Ikasleek euskarazko edo euskarari buruzko azterketarik ez dute. Lizeoan sartu baino lehen, "brevet" azterketan, hautagaiak historia-geografia-"instruction civique" aztergaia euskaraz idatz dezake, eta ez besterik, murgiltze ereduaren ikasten duten hurrek barne. Alderantziz, batxilergoa (*baccalauréat*) eskuratzeko, euskara bigarren hizkuntza gisa ikasten dutenek euskarazko aztergai berezi labur bat badute. Besteek euskara nahierarako aztergai gisa ukan dezakete puntu batzuk eskuratzeko. Seaskaren Baionako Bernat Etxepare lizeoko gazteek batxilergoa (*baccalauréat*) frantsesez iragaiten dute ere.

Horiek oro kontuan hartuz esan dezakegu ikasleen hizkuntza gaitasun desberdinak ez direla seriozki neurtuak. Esan behar da ere Euskaltzaindiaren Iparraldeko ordezkariak urtero EGA (Euskararen gaitasun agiria) azterketa antolatzen duela eta ikasle batzuk aurkezten dira, baina ziurtagari hori Frantziako Hezkuntza nazionalaren onarpenik gabe dago.

Azken finean, eta hori da nere ustez ondorioa, ez dakigu zinez Iparraldeko irakaskuntzak hurrak euskalduntzen duenetz ala ez<sup>2</sup>.

### 3.3. Irakaskuntzaren mugaz euskararen aldeko hizkuntza politikan

Iparraldean euskararen aldeko hizkuntza politikaren alor oroetarik garatuena irakaskuntza da, dudarik gabe. Irakaskuntza podere publikoek duela gutxi berengain hartu zuten politikaren hiztun berri emateko tresna hoberena gisa hauteman dute, familiaren bidezko transmisioa kasik agortua zelarik. Baina dakigun bezala gauzak ez dira hain argi eta simple (Coyos 2005).

Hori da Erramun Osak idatzi duena Euskal Autonomia Erkidegoaz : "Batzuek uste dutenaren kontra, euskara ezin du eskolak bere kabuz eta bere eragin hutsez indarberritu" (*Berrria*, 2006/03/4). Ados naiz ikusmolde honekin esanez eskolak hiztun berriak ematen baditu ere, hiztun hoi euskararen menperatze edo gaitasuna neurtu gabe Iparraldeko kasuan gainera, eskolak eraginik ez duela eskolatik kanpoko hizkuntzaren erabilera, edo gutxi bederen !

Eskolatik kanpo hizkuntza-ingurunea frantsesa da, gizartea frantsesari osorik emana. Euskararen eremu propioak gutxi dira. Gehienetan euskara edo

euskaraz ikasten duten gazte horien ingurunea erdalduna da : gehiengoa frantsesez mintzatzen da familian, adiskideekin, aisialdian, hots eskolatik kanpoko harremanetan. Beraz erabilera ahulaz ez genuke harritu beharko, erabilera hori neurtua den heinean (ikus 1.2.).


*Hiztun* hitzaren adiera hizkuntza duena da eta ez mintzatzen edo mintzatuko dena. Formula matematiko bat balitz honela litzateke : "hiztuna  $\neq$  mintzatzen dena", baldintza nabari eta nahitaezko honekin : hiztuna izan behar da mintzatzeko.

#### **4. EUSKARAREN ERAKUNDE PUBLIKOAREN HIZKUNTZA POLITIKA PROIEKTUAZ BI HITZ : "GOGOA - NAHIKERIA"**

Esan bezala, podere publikoek hizkuntza publiko bat abian ezarri dute eta politika hau kudeatzeko egitura berezi bat sortu dute iaz : "Euskararen Erakunde Publikoa" (EEP)<sup>3</sup>. Bere Aholku Batzordearen osoko bilkuran (2006/02/22an), EEPek hizkuntza politika proiektu bat aurkeztu du eztabaidatu eta definitu nahian, jakinez indarrean den oraiko 2000-2006 Estatu-Eskualde Kontratu Planoaren Politika Linguistika Atala aurten amaitzen dela.

Lerroalde honetan bilkura hartan aurkeztua izan zen eskemaren balizko ahulezia bat agertaraztea da nere xedea, susmatzen dudana ahulezia hori aipatu den "gogoa, nahikeria zeharkako erronka"-n delarik, nere ustez.

## Euskararen Erakunde Publikoaren eskemaren erreproduktzioa:



EEP-en txostenak laugarren "gogoa, nahikeria" erronka hori holaxe aurkezten du : "Gogoa, nahikeria, zeharkakoa da. Alabaina, nolazpait aitzineko 3 erronken baitan erdietsiko den kausitzea baldintzatzen du. Helburua da nahikeria bultzatzea, gizartearen atxikimendua azkartzea, aitzineko beste lan sail guzietan eraginkorrak izateko gisan" (2006). Beraz hortan, motibazioan gutxi gorabehera kokatzen da hizkuntza politika horren gakoak : gizartearen ("aktore sozialeak"), norberaren nahikundearen oinarritzen da ("aktore indibidualak"). Modelo honetan motibazioak hizkuntza politika osoa baldintzatzen du.

- Ikusiz nola bi azken belaunaldiek errezebitu zuten euskara beren haurrei ez dieten eman,

- ikusiz ere nola atzerritar gero eta gehiago kokatzen diren Iparraldean, euskal kultura eta hizkuntzaren izpirik ezagutu gabe,

- ikusiz nola frantsesa ezinbestekoa den Iparraldean bizitzeko eta ez euskara, iduritzen zait aipatua den "gogoa, nahikeria" hori ez dela bat ere aski eragingarria eta ez dela izanen.

Metodologia horretan bolontarismoaren arazoa ikusten dut, irakaskuntzan gertatzen den bezala adibidez : euskararen eta euskarazko irakaskuntza bolontarismoan eraikitzen da, frantsesezkoa, hura, baitezpadakoa delarik aldiz, ikasle guztiei emana, nahi ala ez, murgiltze ereduaren barne. Egia da baldintza horietan irakaskuntza garatu dela bainan ikusi dugu ere gorago bere muga duela, bigarren mailan (kolegioa eta lizeoa) zinez ahula delarik (3.1.). Orduan bai nahikeria bultzatzea, gizartearen atxikimendua azkartzea beharrezkoak dira, bainan gehiago ere : hezkuntzaren kasuan lehen helburua euskararen edo euskarazko irakaskuntzaren orotaratzeko litzateke, gurasoen nahiaren arabera, Iparraldeko haur guztiek euskaraz edo euskara ikas dezaten era batez edo bestez, eskolako ibilbide osoan zehar.

Iparraldeko beste gizarte-eremuetan euskara eskaintza ahulago da, nahiz administrazioan, nahiz lan-munduan, aisialdietan edo komunikabideetan. Iparraldean, irakaskuntzatik kanpo, euskara hizkuntza ezkutatu dago eta beraz



baliagarri eta beharrezkoa bilakatu behar da beste gizarte-eremu batzuetan. Hau da azken lerroaldearen gaia.

## **5. EUSKARA IKASI IPARRALDEAN ZERTARAKO, BEHARREZKOA EZ BADA ? EREMU ELEBAKARRAK**

### **3.1. Bi desoreka**

Euskaraz mintzatzen diren denek frantsesa ezagutzen dute orain. Hortan oinarrizko desoreka funtzional bat bada (Amonarriz 2006), erran nahi baita frantsesa ezinbestekoa dela Iparraldean bizitzeko eta euskara inolaz ere. Lan-mundua har dezagun adibide gisa. Zenbait dira lanpostuak non euskararen ezagutza beharrezkoa den ? Gutxi : 2004-2005 ikasturtean 236,75 postu baziren eskoletan orotara (ama eskola eta lehen maila), euskal irratietan 35 kazetari, eta gero han hemenka lanpostu batzuk (kultura, prentsa, merkataritza, etab.).

Aldi berean legegintzak ez du euskara gerizatzen bainan bai frantsesa, hori da bigarren desoreka, juridikoa (ikus 2.).

Orduan zer egin ? Euskal Herrian bizi den biztanlegoan "gogoa-nahikeria" nola piztu, euskararen irudia ez bada txarra ere ? Honen froga eman genezake euskara edo euskaraz ikasten duten haur kopuruak emendatzen direla ohartaraziz, tokiko podere publikoek euskararen aldeko lehen urratsak egiten dituztela ere, hizkuntzari buruzko gizartearen jarrera baikorra dela (ikus EKE-ren inkesta), etab.

Era berean, kanpotik etortzen den erronkari buruz, Frantziatik bereziki eta beste herritatik ere etortzen diren etorkinen "gogoa, nahikeria" nola piztu, euskara beharrezkoa ez bada ?<sup>4</sup>

### **3.2. Hizkuntzaren funtzio eta komunitatearen bizi-indar etnolinguistikoez**

Soziolinguistek esaten digute hizkuntza baten bizitasuna betetzen dituen eginkizunetan dagoela, beraz bere funtzioetan. Euskararen funtzioez, *Euskaldun orok altxa burua* liburuan C. Ferguson aipatzen da : "Euskal elebakartasunaren zailtasunak ikusiz, beste aterabide bat Fergusonen teoriar aurki daiteke : "Bi hizkuntza elkarrekin luzaz diraute, batek funtzio batzuk betetzen dituelarik, besteak betetzen ez dituenak". Zein dira euskarak bakarrik bete ditzakeen funtzioak? Nortasun kolektiboaren eta kulturaren alorrean bilatu behar dira" (2005 : 204-205).

Beraz nortasun kolektiboa eta kultura lirateke euskararen alorrak. Artikulu honetan jadanik esan dena kontuan hartuz, funtzio horiek euskararen geroa segurtatzen ote dute ? Orduan euskara apaintzeko tresna bat baizik ez ote litzateke ? 1.1. lerroaldean ikusi dugu euskal nortasunaren ezaugarri nagusietarik bat euskara zela Iparraldeko biztanleen ustez, bainan aldi berean ere % 24,7 baizik mintzatzen ez zirela (Euskal Autonomia Erkidegoa 2001) eta euskara ez dakitenetarik gutxi euskara ikasi nahi zutela (Euskal Kultur Erakundea 2005).

Funtzio hoiengatik buruz beste ohar bat egin nahi nuke. Funtzio batzu erdibanaturik gabeko euskara ezin da susmatu. Erran nahi baita euskarak eta frantsesak funtzio batzuk zatikatu beharko dituztela, orain irakaskuntzan egiten den bezala : administrazioan, komertzioan, kiroltan, eta beste zenbait alorretan. Bestela, hola balitz, hizkuntza azkarrenak funtzioak oro gutxi-asko beregain hartuko lituzke. Beraz funtzio batzuk bana daitezke.

Hizkuntzaren funtzioak bazter utziz, hizkuntza bizirauteko eta garatzeko baliabideak beste era batez aurkeztua izan daiteke, komunitate linguistikoaren bizi-indar etnolinguistikoak neurtuz (pisu demolinguistikoa, babes instituzionala, komunitate linguistiko honen kontrol-ahalmena, bere hizkuntzari buruzko iritzia, etab.). Iñaki Martínez de Lunak hori dio : "euskal komunitatearen bizi-indar etnolinguistikoa handia izanik ere, bere kontroletik kanpo gelditzen diren eremuetan erdal dinamika nagusituko da" (2003 : 111. or.).

Beraz hori onartuz, Iparraldeko kasuan bizi-indar etnolinguistikoa ahula dela esan dezakegu, Iparraldean komunitate euskaldunaren kontrol pean diren eremuak gutxi baitira : irakaskuntza murgiltze eredia, zenbait irritati, elkarte batzuk, familia euskaldun batzuk (Nafarroa Beherea-Zuberoako eskualdean bereziki). Eta gero beste eremuetan indarrak biziki sakabanatu eta puskatuak dira : beste komunikabideetan, lan-munduan, merkataritzan, administrazioan, aisialdian.


### **3.3. Erabilera-eremuak : gune elebakar berriak sortu eta azkartu**

Ikastoletan, euskara hutsezko irratietan egunero eta alor oroetako hizkuntza bakarra euskara da. Hortan da Iparraldeko euskararen geroa. Erabilera-eremu desberdin gero eta gehiago atxikitzea non euskara ohizko hizkuntza den. Bestenaz dakigun bezala frantsesera lerratzen (irristatzen) da beti, edozein estakaru edo arrazoi izan dadin. Iñaki Martínez de Lunak berriz aipatzen dut : "Ingurune hauetan itxaropen edo aukera bakarra "ongi hesiturako" *oasi euskaldunak* sortu eta trinkotzea da" (2003 : 112. or.).

Beraz hizkuntza politika eraginkor baten helburuetarik bat da eremu euskaldun sortzea, euskaraz mintzatzen den bakoitzak euskara beharrezkoarekiko harreman sareak sortzen eta atxikitzen dituen bezala. Oro har, hortan dago behar bada oraiko Iparraldeko hizkuntza publikoaren ahulezia : bi hizkuntzen arteko desorekez ohartu eta, irakaskuntza garatzeaz eta motibazioaren bultzatzeaz haraindi, euskara gero eta gehiago beharrezkoa ez bihurtzea.

## ERANSKINA

Ezagutzaren eta erabileraren arteko tartea : hizkuntza gutturu baten erabileraren eragileen eskema sintetikoa<sup>5</sup>



Eskema honek Pablo Suberbiolaren artikuluan agertu zen Iñaki Martinez de Lunaren eskemari zerbait zor dio (2004 : 55, 1. irudia, *Hizkuntza biziaren euskarriak (edo erabileraren erabilten duten faktoreak)*).

Konparaketa bat egitea luzeegi litzateke, baina esan dezakegu eskema honetan, era batez, "norbanako ezaugarriak" (hemen ahalezko hitzuna eta solaskidearenak), "harreman sareak" (solaskidea, testuingurua eta ingurune hurbileko hizkuntza hemen lirateke) eta "gizartearen egitura" (gizartearen ezaugarriak eta hizkuntzaren lekua hemen) aurkitzen ditugula. Aldiz, eskema honetan, gorago esan bezala, ahalezko hitzuna, mintza daitekeena, erdigunean kokatua da, erdiko zirkuluan, hizkuntza komunitatea ez dela mintzatzen baina bai hitzuna direla erakusteko. Halere "harreman sareak" ez dira egiazki agertzen eskema honetan eta laugarren zirkulu bat beharrezko litzateke behar bada, gizartearen egituraren zirkulua baino zentralagoa, eragile hori zuzenago dela azpimarratzeko.

Eragileak ("faktoreak") zuzenen eta zeharkakoen artean bereizten dira ; hemen, zeharkako eragileak kanpoko gune grisean agertzen dira. Esanahi zabalean gizarte-faktoreak dira. Alderantziz, norberaren eragile zuzenen artean dira eta bai ere hizketa testuinguruari lotu direnak.

## ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Amonarriz K. (2006). Gazte hizkeraren egungo egoera eta garrantzia, in [http://www.erabili.com/zer\\_berri/muinetik/1134860990](http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1134860990), 2006/01/09.
- Aurnague J. & Duguine M. (2003). *Euskaldun orok altxa burua Enquêtes sociolinguistiques en Garazi 1982, 2002*. Lankidetzan bilduma, 33. Donostia, Eusko Ikaskuntza.
- Coyos, J.-B. (2004). *Politique linguistique Langue basque et langue occitane du Béarn et de Gascogne*. Donostia / Baiona, Elkar.
- Coyos, J.-B. (2005), novembre/azaroa. Les politiques linguistiques actuelles en faveur de la langue basque, in *Marges linguistiques*, 10. Revue semestrielle électronique en Sciences du Langage : *Langues régionales*. M.L.M.S. éditeur. <http://marges.linguistiques.com>.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila (2003). *Euskararen Jarraipena III Euskal Herriko Soziolinguistikako Inkesta 2001. Iparraldea*. Gasteiz, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia (22-34. or).
- Euskal Konfederazioa (2005, abendua). *Hizkuntza politika publikoa Iparraldean*. Polikopi, elebidun.
- Euskal Kultur Erakundea (2005, iraila). *Praktika kulturalak eta nortasun kolektiboak Euskal Herrian. 2004-2005ean eraman inkesta kuantitatiboaren eta kualitatiboaren emaitzen ekarpena*. Uztaritze. Polikopi, elebidun.
- Euskal Soziolinguistika Institutua (2002). *Kale erabileraren IV. neurketa 2001. Emaitzak, Azterketak, Gogoetak. Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 43. Andoain, Euskal Soziolinguistika Institutua.
- Euskararen Erakunde Publikoa (2005, uztaila). *Euskararen eta euskarazko irakaskuntzaren eskaintzaren azterketa kuantitatiboa*. Polikopi, elebidun.
- Euskararen Erakunde Publikoa (2006, otsaila). *Hizkuntza Politika Proiektua. Aholku Batzordearen Osoko Bilkura (2006/02/22)*. Polikopi, elebidun.
- Ferguson C. (1959). Diglossia, in *Word*, 15, 1. New-York (325-340).
- Martinez de Luna, I. (2003). Soziolinguistika, in *Jakin*. 136 maiatza ekaina. Donostia. (107-112).
- Osa, E. (2006). Hizkuntza-ereduei buruz hausnarketa. Gogoeta, in *Berria* egunkaria, 2006/03/04.
- Suberbiola P. (2004). Euskararen erabileran nondik eragin ? Zenbait gogoeta, in *Bat Soziolinguistika aldizkaria*, 53. Andoain, Euskal Soziolinguistika Institutua (53-66).

## OHARRAK

<sup>1</sup> Iparraldeari dagokionez, azken inkesta, 2001koa, Hizkuntza Kontseilu zenaren lankidetzarekin egin zen.

<sup>2</sup> Euskal Konfederazioak bere *Hizkuntza politika publikoa Iparraldean* txostenean 6garren eta bigarrenean (kolegioko eta lizeoko lehen urtean beraz) ikasle guzien euskara maila neurtu izan dadin (2005) galdatu du.

<sup>3</sup> Frantses estatua, Akitania euskualdea, Pirinio Atlantikoetako departamendua eta Euskal kultura sustengatzen duen herrien arteko sindikata dira parte-hartzaileak ; 2006ko aurrekontua : 1 733 000 €, lau teknikalari lanpostu eta erdien soldatak barne.

<sup>4</sup> Etorकिनен ehunekoia igotzen ari da Iparraldean : 1991ean %31,3, 1996an %38 eta 2001ean 39% (Euskal Autonomia Erkidegoa, *Euskararen Jarraipena III...* : 24).

<sup>5</sup> Eskema hau argitaratzeko den "Ecart entre connaissance et usage d'une langue minoritaire : essai de typologie des facteurs. Le cas de la langue basque" mintzaldian aurkeztu dut (*Politique linguistique et enseignement des Langues de France* jardunaldiak, Tolosa (F), 2005/05/26-27).